



Entitatea: Arrietako Udala

Saila: Idazkaritza

Espediente mota: Kontratazio administratiboa.

Kontratu mota: Administrari berezia.

Kontratuaren xedea: Libao 14 auzoko udaletxe azpian dagoen Herriko tabernaren ustiaketa.

Esleitze prozedura: Irekia, esleipenerako irizpideekin

Prozedura mota: Arrunta

Espediente zenbakia eta urtea: 1/ 2017

Dokumentu mota: Alkate Dekretua.

ALKATE DEKRETUA 2018/12

2017ko abenduaren 28an Arrietako Udalak, Libao 14 auzoan, Udaletxearen azpian dagoen Herriko tabernaren eta 2017an egindako itxiduraren ustiaketa egin behar zela erabaki zuela ikusita

2017ko abenduaren 28an kontu hartzaile eta idazkaritzako txosten egokiak eskatzen zituen Alkatetza Probidentzia igorri zela ikusita,

2017ko abenduaren 28an kontu hartzailearen txostena igorri zela ikusita, kontratazioak indarreko aurrekontu orokorreko baliabide arruntei dagokien ehunekoaren gainean,

2017ko abenduan zehar, kontratuaren esleipena zuzendu behar duten Baldintzen Orriak egin eta bai Baldintzen Orriak eta baita Baldintza teknikoan Orriak espediente administratibo honi erantsi zaizkiola ikusita,



2017ko abenduaren 28an, 86/2017 Alkate Dekretu bidez baldintzen orriak eta teknikoak onartu zirela ikusita,

2017ko urtarrilaren 10eko 7 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean esleipenaren iragarkia iragarri zela ikusita,

Adjudikazioa egiteko esleipen eskaintzarik ez dela aurkeztu epe barruan ikusita,

Aurreko guztia kontutan hartuz, Angel Maria Acillona Martinezek, Arrietako Alkateak, esleipen honen Kontratazio Organoa izanik, legezko eskudantzien erabileran eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege-Dekretu Legegileak onartutako (Bigarren Antolamendu Gehigarria) Sektore Publikoko Kontratu Legeko Testuan ezarritakoaren arabera,

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Espedientearen tramitazioa ikusita eta lizitazio publiko honetarako Kontratazio Organoak aukeratzeko epe barruan adjudikazio eskaintzarik ez dela aurkeztu ikusita, lizitazio publikoa hutsik geratu dela adieraztea.

Bigarren.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean iragartzea, bere ondorioetarako.

Hirugarren.- Ebazpen honen barri hurrengo Osoko Bilkuran emotea.

Arrietan, 2018ko otsailaren 2an.

ALKATEA



**Nire aurrean,
Idazkaria**